FLORIAN

Treize Fables

de

Florian

traduites en langue basque

par

Monsieur l'abbé Goyetche.

522

Copie terminée le 10 Juillet 1890.

1. Fable 5. Cahier N° 7. (1.

Untza eta Usoa.

Ay! nere litchacabea!
Cen Untz baten deithorea;
Çahar, herbal, oiñharexu,
Burruaz goiti beharscu,
Bakhar nago munduhuntan;
Eta nihoiz nere egoitean
Hegastin bat ezta sarthu
Beharrez ni consolatu
Uso batec hitz hauc aditu cituen,
Eta eria gana laster eguin cituen:
Ah! nere kide gaichoa,
Derro, hagnitz pleini dut çure ondicoa:
Baina eztut sesitcen hambat
Çaren adiñeko Untz bat
Dadin içan espos gabe.
Ez ahaide, ez ume, ez ilhobaso ere.
Cer! çure urthe edertetan
Ez çare-ia sarthu nihoiz ere ezcontçan?
Ez segur, anaia, hemen
Untzac dio ihardexten
Ezcon ni! eta cergatic?
2. Lanyer horren berri sobra nakien nic.
Nahi cindukena har neçan lagunt̃at
Urricha erguel, coketa bat
Ceinac baminduen bethi trumpatuco
Edo erho-arazicico
Eta cargatuco haurrez
Caractera gaitztocoez

Eskergabe, falso eta suyet tcharrez,
Bere barnean segurki
Aitaren hiltcea bethi
Berantegui çaiotenez?
Ecen hec hurren direnac
Dire holaxu eguinac
Ahaidez beçambatean,
Estut hainitz presentean;
Eta ezditut ere nihoiz nic ikhusi:
Gogorrac dire eta nahietan herai,
Coleran ezdeusen-gatic;
Eta ezdute maithe nihor hec berceric
Ondoco eguin hec detçakenic baicic:
Eta oraino berantegui
Nahi ezdute iguriki
Hauridec eta cusiec
Gaituzte aborritcen
Baieta arrobatcen
Eguin ahalaz guciec,
Ez naiz segur çure oldeco,
Usoac itçultcen dio:
Baina adiskideez mintça gaiten-eia:
Hauc dire eguiazco chiurtchen familia.
Causitu dukeçu hetan duda gabe
Asco consolacione?
- Ah! begotz adiskideac,
Falsoac dire direnac.
Gogoratcen çaizkit bi Untz hemen niri
Elkhar maithatu biciki
Çutenac hamabortz urthez,
Eta çoriz egun batez

Sagu triste baten-gatic
Elkhar hil çutenac colpeca lothuric.
Adiskidantçan nic fede gutiago
Dut amodioan baina.
– Baina, Jaincoac barkhatu!
Horlatan ez duçu çuc nihor maithatu?
– Ez segur, derradan
Hau bien arteau.
Ordutic nere maithea
Ez dohatçu pleinitcea.

---

4. Fable 6.

Bipera eta Chintchibareari.

Biperac cerron behin Chintchibareari
Çoin guti garen cortez gu elkhar iduri!
Çu çaituzte bilhatcen
Ihes niri eguiten
Ere ahal bada hiltcen:
Aldiz çaituztenecо çu nombait atzeman,
Çure hortzen colpea beldurcceco plaçan
Guiçac bere odoletic dautçu berehala
Ematen hazcurria eta ase-ahala:
Nahiz den gure bien ausikia igquala.
Intçuretaco Damac baderro biciki:
Ez horiez hargatic, gueçurra da hori,
Çurea da caltecor
Nerea aldiz salbacor:
Nere bidez eriac dire maiz sendatcen,
Çure bidez senduac oiñha cetan hiltcen:
Bien artean dugun guc diferentcia,
Da neretçat hagnitz ohoragarria:
Ecen çu çare poçoina
Eta ni contra-poçoina.

5. Fableac darocu hemen
Agueriki eracuxten,
Cer den mihi medisenta,
Cer abisari prudenta.

Pacha[1] eta Derbicha[2]

Africano baten ganic
Ducat ikhasia nic,
Turkian Pacha bat behin
Cacha ciguillatu precios batekin
Citçaiola gan arraiki,
Arabiaco lurretan
Aurkitcen cen ordu hartan
Derbicha çuhurrenari.
Cacha huntan derro bada
Perla eta diamanta
Preciatuenetaric,
Huntaz nahi nioke nic
Eguin present guiçonari
Munduan çure oldez erhoen denari:
Ongui bilha çaçu
Edirenen duçu.
6. Harturican cachattoa
Gure penitent gaiçoa
Munduz-mundu badohatçu:
Urrun bada harrec beharric curritu:
Othe du?
Embraçatua cen hautatceaz choilki:
Baçathorzconecen bethi
Alde orotaric erhoac
Batçuec bertceac baino erhoagoac,
Nasai beguien bistara:
Baina cacha gardatcera
Barnetic cerbaitec çuen

Gure Derbicha erakhartcen,
Ceçakelacoan aurki
Cembait orain erho-nausi.
Çabillala berax hola herriz-herri,
Bere depotaz minekin
Ez yakinez ya cer eguin:
Biaya luze bat eguin duenean
Cofrettoa besa pean,
Goiz batez gure guiçona
Hartua bere eximena
Sartcen çaitçu bada Constantinoplean (3)
Aurkitcen da populua
Alegrantcian sarthua:
Cer iragaten da, dio?
Deusic aphez batec dervo;
Gure Soldanac (4) du choilki
Bisir-handia (5) egorri
Mahomet Profeta-ganat
Ordre bat eramaterat.
Cetazco cordoiña noble baten bidez,
Yendeac holaco arribacariez
Hirri du bethi eguiten,
Eta ezdeuskeria batçu nola diren,
Gure Soldanac maiz askí
Bademo axeguin hori.
— Maiz - Bai Yauna - Ederki
Bisir berria ondoco
Eguina da - ia orainó?
— Bai segurki, eta chuchen
Horra non igaraten den
Derbicha hitz hoietara

Badoha yauziz plaçara;
Eta dioneco hurbildic behateen,
Bere eçagun Pacha hor dautçu causitcen;
To! hi hemen! hunec dervo:
Eta cofrea? guarguero.....
8. Yauna curritu dut Asia gucia;
Iksusi erhozco net oste handia
Baina ecin hautatu baitut
Nere biaya egun hemen finatcen dut.
Har çaçu Bisir handia
Çuretçat cofre yoria.

---

1) Turquian Probintciatáco buruçaguiac.
2.) Turcoen arteco penitent edo Ermitan
suerte bat.
3.) Turcoen hiri capitala.
4) Turcoen lehen buruçaguiaren ematen
çaion icena.
5) Lehen ministroa.

Castillaco Laboraria

Erregue maithatuena
Daite bethi prechentena:
Alferretan contrario
Aguertcen fortuna çaio;
Alferretan exai millaca elkharrekin
Complotan çoriarekin
Aspertcen çaizco oro betan,
Lehertuco arras duketelacoan;
Suyetcn amodioac
Harroin paregabecoac
Heien eforta handiac
Ithauntcen ditu guciac
Bere malurez berez handi cen Erregue
Baten ilhobasoac deithuac Phelipe,
Ez diru, ez armada ez creditic ere,
Madrildic Anguelesaz ere khasatua:
Bere coroa ya-ya çaducan galdua
Thesi çohan hurren utzia bakharric,
Auhendatcen casua minki çuelaric.
Colpe-colpez hor çaio heldu aitcinerat
Lurguin çahar, ideki, laino eta çucen bat,
Cituena maitheago
Bere bicia ere baino,
Emaztea eta Erregue
Patria eta haurrac ere:
Berthuteaz mintçatcen hagnitz guti cena,
Aitcitic praticatcen arthoski çuena:
Aberaxa cen arren, oroz maithatua,

Castilletan famillen deithua exemplua:
Soinecoa çakharren alabec iruna;
Chapel çabal batetan burua çatçana,
Bi begui bicienez çagon arguitua,
Larrua beltzarandua
Mustatchac sudurpetic çohazcon oraino,
Cocoxaren azpiraino.
Hamabi seme hazcar, eder eta larri
Baçathorzkion segui,
Çaducatela erdian mula bat lothua.
Eta urrez cargatua
Guiçon hau eskipaya estranio hortan
Baratcen Erregueri çaio aitcinean,
Eta baderro: norat duc hire bidea?
Exaia nausitu dea?
Galdu duc-a bictoria?
Alfer duc Alemanac eraman garaia
Hic duc erreguiñaturen,
Hi haiz maithatua ecen.
Cer eguiten dic Madril hic galduric ere?
Gure bihotza duc hire:
Gure gorphutzez murru diagu eguinen:
Hiretçat batailletan gaituc ere hiten
Corteac bictoria ditic irabazten
Baina gure bihotza irabaztecotçat
Behar duc erakuxi berthute multço bat;
Bada hura hire baituc
Hic erreguiñatuco duc.
Gure dirua, bicia
Har-çac, hire duc gucia.
Esker berrogoi urthen lan eta espraiñari

Diru hori badiat emateco hiri.
Huma nere semeac hamabi nombrean
Hamabi soldadu on hire beharrean
11. Ni neroni, bilhoa çuri dudan arren
Içanen nauc gogotic hamahirugarren:
Eta guerla acabatu osoki denean
Hire Yeneral eta oficialeac
Bai eta handi bertceac
Ethortzen z çaizkikenean
Bere cerbitçuen orde
Ontasun, cordoin, ohore
Guc eguinãren aldera
Ez daiagu segurki galdetuco deusic
Bakhea eta harekin yusticia baicic:
Ezbaidukegu bertce guc deusen beharric
Gu garen yende chehe eta on beharretan
Dic aurkitcen Erreguec behor orduetan
Odol eta diru:
Eta urrun guc galdetcen hari baidiogu
Ordainezco emaitçaric
Cembatez harrec beretic
Eman gutiago,
Hambatez çaicuc guri maithagarriago.
Çorionera behin haizenean heldu,
Hire gorthetic ihes eguinen diagu;
Bedincatcen haugula ichiltasunean.
Orai bilhatcen haugu hire malurean
12. Printce nobleac, sepan handian sarthua,
Altchatceco hedatcen dio bere escuan;
Besoetan tincatcen samurki duela
Azpico bat hain leiala:

Nahi laiteke mintçatu,
Baina sepac ithotcen du.
Laster, laborariac aguindu ciona
Philipec ardiexten du guduan gaiña:
Eta Iberiaco[1] thronuan yarria
Apantzi ez çuen ez harc laborariric.

---

[1] Mende iraganetan Espainiari
ematen citçaion icena.

Torrota eta Rochinoleta

Torrota baten cantuac
Ocen beçain leguinduac,
Aradac inguru ceuzcan charmatuac;
Baciduritçon laiñoki
Rochinoleta arc baccçakela ichil:
Desafroa ere cioen egorri.
Hautatu cen hortaraco
Oihancan lekhu on bat guduraco;
Yuyeac ciren plaçatu,
Hura çain ciren hautatu:
Ttariña eta guero choca
Pintchanga eta chihsca.
Gaineraco choriac han
Heien guibelean yarri ciren metan.
Campaco ordena onaren
Corgua ensan citçaioten
Bi cardamiru çaharrei
Eta bi Allanda gastei,
Chochoa cen trompetari:
Seina yotcen du airoski.
Adi-araztein tu orduan torrotac
Bere ciztu goçoenac,
Artechki du aldizcatcen
Bere ahaire liraiñen
Acordu unkigarria,
Eta bere copla eztiez
Laster du bihotz guciez
Yabetçen chantre nausia.

Biltçarrac oihuca hagnitz laudatcen du:
Laster da harroa ichildu
Orduan Rochinoleta
Bere chaindean hasten da:
Hiruu acorta harc, ocen, berdin, puru
Airera botatcen ditu,
14. Mobimendu perfeteau,
Içari yustuenean
Ceiñac finatcen baiditu:
Bere musicaren hastea hori du.
Guero haren cintçur legunac goçoki
Baderamatçu placentki
Bere boçaren tormac
Nihoc ecin condatuac
Orai laster eta bici
Bakhan eta unkicor sarri:
Dituela oro harritcen
Eta choratuac utzten
Yuyeac guciac gatic
Balentçan daude ichilic:
Choca eta chilisca ceren
Torrotac bethitic omen
Adiskide baitcituen;
1 Niholere ez-çuten nahi
Precioa eman nehorri.
Bertce yuyec aldiz çuten
Gogorki ihardukitcen;
1 Ychil-ichila bilduac
Entçuten cituen heien abisuac
Sabantac
15. Uzkinacho bat noiz eta

Betbetan saltatcen baita,
Hyla derrala oihuca:
Gorrotac du victoria!
Horrec gal-arazi cioen haucia.
Oste hegaldunac ecen berchala
Elkhar harturic beçala
Eman cioen goraki
Gaina Rachinoletari
Gaiço baten boça, eguia erratera,
Hagnitzez hobe da aldebaino contra.

Fable 10.

Dirucoia eta bere Semea.

Nic ez dakit nola ez eta certaco
Dirucoi bat behin ongui bicitceco
Egun eder batez goan cen mercatura
Sagar cembait erostera:
Erosi eta ondoan
Eçarri çituen, arrimatu ere
Eta bizcondatu ere,
Bi torru ciotçan eman sarraillari,
Eta egun guciez cituen ikhusi.
Guiça gaicho harrec bere erhokerian
Sagar onac çauzcan espraiña handian:
Baina çuenean aurkitcen ustelic,
Yaten çuen hura auchen bat botaric.
Haren seme estudiantac
Ardura sabela hux çarabilçanac
Aztenean descubritu
Aitaren sagarrac ditu:
Cobratcen ditu gacoac
Cerrategui hartacoac
Bi lagun gazte harturic
Yale hoberenetaric,
Badoha toki hartara.
Aise badathor gogora
Hec han cer eguin çuketen,
Eta sagar cembait sunxitu çaiteken?
Cikhoitza badathor chuchen ordu hartan,
Dolorez, latzduraz, mutu dago bertan.
Oy! nere sagarrac! dio azkenean:

Canaillac' orai berean
Ez baditutçue sagarrac bihurtcen,
Guçioc çaituzte nic urkha-raziren.
Aita, semeac baderra:
Ezti bekisu colera;
Yende galant batçu gare:
Cer dautçugu eguin calte?
Eztugu yan guc sagarric
Yateco on cirenac baicic.

Cortesanoa eta Proteo-Jaincoa[1]

Cortesanoez sobra da erraten gaitzki,
Eta alde orotan bethi
Aditcen da inutilac Estatu arentçat,
Direla abilac choilki bere intresarentçat
Medisentcia hux bat baicen ezta hori.
Eracurri içan dut, noiz ez dakit onxa
Syriaco[2] erresuma guciz aberaxa
Gortheco handi batec salbatu cuela
Eta huna nola
Erresuman aguertu içurritea cen,
Eta hunen furia yabal ez çaiteken
Jainco Proteoc bere abis dibinoa
Non ez-çuen ematen haren gainecoa.
Jainco hau, guciec dakitena ongui,
Bici gaitzeco da eta ethorcorra guti;
Mintça-raztecotz hura, behar çaio luze
Yarraiki guelditu gabe
Haren cilhotic hurbil egonic celatan
Behar da colpez hartu gutien usteau,
Eta lothu han bercan
Nahiz detçan aldizca har gogara berac
Ttchura icigarrienac.
Cortesano çahar bat, Erregueren partez
Ixcas-Yaincoari hor diozca colpez.
Hunec, net harritua, coleran sarthuric,
Sugue beltz baten traça betbetan harturic,
Bere aho poçoinxutic sar eta atheraca
Eztena hilçaille bat, husu darabilca;

Eta dembora berean.

Ybiltze ezkere eta ceihartu batean
Biraca çaio bere buruari biltcen:
Plegu batez duela urhax bat eguiten.
Cortesanoac hirriz: baçakiat eiki
Ybiltze hori, derro, hic baino hobeki;
Baita nola eguin ausiki.
Badohaco orduan nahiz hanapatu;
Baina Jaincoac colpez traça du chanyatu;
Bihurtcen çaio aldizca
Osco eta Acheri, Chimino eta Lyntcha.
Nere artificioan nauc garaitu nahi,
Cerran cortesanoac: baina ya aspaldi
Hauzdanic hunarxino,
Bestia gose, madre, artech horec baino
Hagnitzez halere,
Tretu horietarat eguina nauc trebe.
Chanyatcea yaunzcuraz eta ohituraz
Bai eta conticienticiaz:
Ez çaitec enetçat deusic,
Hauc baino errechagoric.
Hortan lotcen çaio colpez Yaincoari
Amarratcen du gothorki:
Oraclea dio khentcen:
Eta garaitiagoda gortherat itzultcen.
Eracurle maithea, da hemen agueri,
Cortesano batec ongui
Nola eguin deçoken bere Patriari:
Ezta Cartuch, ez Mandriñik
Ongui cerbait nolazpait eguin ezduenic.

(1.) Paganoec bere millaca Jaincoen artean baçuten hau ere, Proteo deitcen çutena, ceren hartcen baitcituen nahi cituen itchura diferent guciac eta baitcen ecin sesitua ez mintçatua berac nahi ez baçuen.

(2.) Eyiptoaren hauçoco Erresuma aberax bat orai Turco handiaren meneco dena.

Fable 12:

Chimino emea, Chiminoa eta eltchaurra.

Chimino-urricha gazte batec behin
Hartu çuen pattarekin
Eltchaur oraino berde bat,
Eta eraman hertzetarat.
Ausiki çuen orduco
Grimasa eguinic badio:
Nere amac geçur bat çuen handia eguin
Niri erratearekin,.
Eltchaurrac onac cirela.
Guero sinhex çaçuela
Asco hoien erasia!
Enganatcen dute bethi gasteria.
Hunelaco fruitu tcharra
Dohala Diabrutara!
Eta eltchaurra du etchatcen.
Chimino batec du biltcen;
Eta bi harriren bidez
Hauxten du cascaco biez:
Guero mamia berechten
Eta irexten.
Handic baderro çuhurki:
Maithe, çure amac segurki
Ez-çuen erran gueçurric;
Hori baderrait çuket nic:
Eltchaurrec gustua hagnitz ona dute,
Baina ideki behar dire.
Orhoit çaite, mundu huntan
Placeric nahi bada ukhan
Behar dela bethi pena aphur bat yasan.

---

21. Fable 13.

Lapiña eta Charlcheta.

Haurdanic bateratuac
Eta elkharrez net hartuac
Lapin bat eta ahate bat
Munduan nihor beçambat
Çorionxu eta content bici ciren.
Lapiñac lurpea çuen
Ybaso baten contra cen
Parke baten bazterrean:
Goizean eta arratsean
Gure bi adiskideac
Bethitic hanço maitheac,
Ybai-heguian, batean
Ostroilapetan bertcean,
Bata bertcearen baithan biltcen ciren,
Han cirela othurruntçatcen
Eta elkharri hari berrien condatcen:
Heientçat ez-cen berriric
Garabic gustagarriric,
Biec, bicia çuteino
Cutela elkhar maithatuco
Hiçu erratea baicic.
Heien hitzketec ez-çuten
Casic suyet hori baicen:
Placer, dolore, Changrinac
Bien cire bethi batec cituenac
Cerbaitec bacion bati falta eguiten
Bertceac dolu baçuen:
Bat minez çagoenean

Triste cen bertcea dembora berean:
Aitcitic batec baçuen
Cerbait onic esperatcen
Biac aitcinetic hartaz phoztcn ciren.
Holaco çuten çoria:
Noizeta egun batez, egun latzgarria!
Lapiña çathorla Chartcheta baitara
Bazcaitara
Etchean aurkitcen eztu,
Griña handian deitcen du:
Oihuac ditu doblatcen
Nihorc ezdio ihardextcn;
Hara-huna badabilla,
Eguteintu tornu milla,
Sescadia du miratcen,
Heguiti dilindan urera behatcen
Yauz laite urera gogotic
Bere adiskidea aurkitcen-gatic.
Helaz! cerran oihuz-ez nauçu aditcen?
Ihardex çadaçu arren,
Nere arreba, nere lagun guciz ona:
Labur çaçu nere pena.
Oraino hulaco mement hagnitz guti,
Eta acabatuco naiz ni:
Ah! lehenago hiltcea
Ecen-ez ikharaz çutaz bicitcea!
Erran eta haue oihucan
Abiatcen da lasterca
Nigar eta izcolaca
Seguituz ibai-heguia
Aurkitcen du Yaureguin,

Ceintan egoitça duena
Baita lur hetaco Jauna.
Lapin desolatua han
Sartcen da lorezco baratce batean
Hegastintegui bat han ikhusten dautçu
Çointan hagnitz chori baitçabiltçan husu,
Alde orotarat airean
Ur-untci baten gainean.
Amodio fiñac badema curaye:
Gure adiskidea, deusen beldur gabe
Charetatic da hurbiltcen
Behatcen du barnat, eta han ikhusten...
O goço! o çoriona!
Chartcheta galduçuena:
Laster phozcarioz oihu bat eguinic,
Eta demborarik galdu gabetanic,
Arrebaren consolatcen
Da lehian abiatcen
Bere laur atzez guero du
Bide gorde bat cilhatu.
Ceiñac behar baitu lurpe hartan-gaindi
Bere maithearen gana hel-arazi;
Eta horra non betbetan
Sartcen den chiritegnian:
Minur bat nola den sartcen
Berteela hartu ecin-cen
Guerlaco hiri batetan.
Chori guciac ihesca
Badohaz elkharren gainzca.
Badohaco Chartchetari,
Eta tiraca anxioski

Darama bide ilhumera
Eguinic çathorrenera;
Guidatcen du lur barnean
Eta arguira direnean,
Casic hil nahi da leguez
Phocez.
Cer ordua hec bientçat!
Cer embraçua neretçat!
Pinta ahal baneça ochala
Sentitcen dudan beçala!
Gure bi maitheec uste çuten denic
Heientçat ez-cela ya beldurtcecoric:
Urrun çabiltzan contutic.
Baratcearen yabeac
Ikhusi citzenean
Haren hegastinteguian
Eguinac ciren caltcac;
Ciñ eguiten du coleran
Gueldituco ez-dela inguru orotan
Biciric lapin bakhar bat.
Nere arcabuçac, hox, hunat,
Non dire nere putotchac?
Putotchac eta arcabuçac
Daude prestac.
Gordiac eta çacurrac
Hari dire charapetan
Presa eta contu handitan
Miratcen lurpe guciac
Lecasca, berho sasiac
Ezta lapinic agueritcen
Non ez den hilla guelditcen:

Cannesco hiri handitan
Lehenago Italian
Erromar aitoren seme
Ez-cen erori hainbertce;
Ez çioten Marengoco
Ez eta Austerlitzeco
Ez Bagrameco, ez eta Baterloco
Batailla ospatuetan
Hainbertce mustatchec hurrari pot eman.
Horra arraxa ethorria:
Hambat odolisuria
Gai ezta ethentceco Jaunaren furia
Masacrea finatceco
Oraino utzten da biharamuneco.
Lapina dembora hortan
Cucuildua sescapean
Bere arrebaren aldean
Heriotce dorphe baten
Ikharan beira çagoen:
Bainan arrebari cerron hertchatuki
Uraz bertce aldera çioan itçuri:
Haren bistan ceren ez-çuen hil nahi.
Chorioc aldiz baderro:
Ez çaitut ez nic utzico
Gu gaiten separa! o nere maithena!
Heriotce hori laite cruelena
Ahal bacineça ur hori iragan!
Eta certaco ez? Çaude hor berean....
Aphur bat chartcheta urruntcen da handic,
Guero badathor nombaitic
Ohatce çahar bat dakharla herrestan,

Ahate batçuec utzia nombait han.
Cañabera ostoz laster du bethetcen,
Ephe galtzecoric ez cen;
Çapatcen, yuntatcen tinki dituela,
Mocoaz eta atzez husu hari dela.
Eta bateltto bat fite da eguiña
Carga pisusco bat yasan deçakena:
Amarratcen guero dio untciari
Thi lodisco bat cablea iduri.
Halache barcua denean aphaindu
Guero urrera lantçatu
Emeki-emeki sartcen da cucheau
Lapina haren barnean,
Dagola uzkiaren yarria gainean:
Dembora berean Chartcheta iguerica,
Badoha ihiari phermatuz tiraca;
Daramana carga hari hain maithatua.
Heltcen çaizkitzu heguira,
Yauzten lehiaz lurrera;
Oy! cer hec bien placera!
Bortutic ez urrun guero
Bicia ecamateco
Hartu çuten egoitçatçal
Thes-lekhu nihore ecin ikhusi bat:
Eta eguin çuten bicia
Urrusa, baina itçalia,
Ceiña hambatez maithatcen
Guchiago hec baitçuten
Ceren çor elkharri biec baitcioten.

---

1. Fable 15.

Cahier N: 4.

Lehoinaren educacionea.

Lehoin Errequec luzerat
Içatu çuen seme bat,
Haren erresuman etcen
Phozdura eta phecta baicen:
Erreque urrusec badute
Bethi nasai adiskide.
Lehoin yauna baitcen monarca çuhurra,
Nahi çuken bere haurra
Nausi berthutos çaiteken
Eta estimu baçukeien
Baten escutan eçarri;
Arren çukeien ikhasi
Guerroco oficioa,
Goiz danic eguinez bere aprendizcoa:
Penxatcen duçue naski
Baçohacela gauçari
Atentcione handia,
Handi çuelacotz harc impotentcia.
Monarcac, net gminatua,
Biltcen dautçu conseillua;
Hitz gutiz du esplicatcen
Kestione han certaz den:
Yauzi çaioc artçainari
_ Hala daiteke-ia hori?
_ Bai, anai, hala duc bada.
_ Helaz! nori beraz fida?
Hola ciren behin mintço
Harrean bi cikiro:

Eta berria eguia cen
Muftar bekhatuan atzemana baitcen
Suplicioaren beguira çagoen.
Nahi çuen bordariac
Laster eguin yusticiac
Cetçan ikhara ikhusiac
Herrico çacur guciac.
Haucia egun batez aise finitu cen,
Ecen lekhucoac guerthatu cenaren
Batentçat milla baciren:
Oro elkharren bistan interrogatuac,
Hitz beretan çauden net lehiatuac.
Muftarren gain dire
Hirur heriotce:
Muftari berax orduan
Sarthuco çaizco burnan
Bi bala, bekhatu hare eguin lekhuan.
Bordaco guciac ilki ciren, hura
3. Terreatcen ikhustera
Bildoxee gracia Muftarrentçat hemen
Lainoki galdetu çuten;
Errefusatu citzçaien
Baina eman-arazi ciren bere plaçan
Orac yarri ciren, heien aldaketan,
Triste humil, ilhun, beharria erori,
Escusatu gabe, çutela urricari
Bere anaiaren çoria
Badago mundu gucia
Erabilli gabe garabic mihi.
Muftar aguertcen da sarri
Bi artçain ditu guidari

Denean heldu tokira
Altchatcen ditu cerura
Bere begui nigarxuac;
Eta arengatcen hula oste bilduac:
Çuec adiskideac eta anaiac beraz
Nic ecin deithuac, orai icen hortaz
Nere azken finaren çaitenac lekhuco
Huna bada certaraino
Hirrixa tçar batec daramakenbata.
Ah! berthutearen senda
Hamabortz bat urthez nic atchiki nuen;
Behaz topa batec baztertu ninduen.
Nere oben handian huna istorioa
Altchatcearekin alba goizecoa,
Oihan handiaren nindagon heguian
Gure athaldearen bakharric gardian
Oxo bat badathor, bildoxbat du hartcen
Eta daramala hari da ivexten.
Lasterca fite banoa
Atzematen dut oxoa;
Eztei hasia utziric
Nere alderat itçuliric
Furian nau atacatcen:
Nic azpira dut etchatcen,
Eta han berthan ithotcen.
Hortzainocoan gauça
Ez-çaiteken baicic onxa:
Baina hemen chanpatu cen:
Yan chahar nola bainintcen,
Behatcen diotet ondicoz ondorrei
Bildox hasitic han oxoac utziei:

Aphur bat dudan banago...
Finean hargatic guero
Lotcen natçaiote, naicen obenduna:
Nere gaitz gucien horra hastapena.
Ardia hor dathor orduan laurenca:
Ama cen beçala, hasten da izcolaca....
Burutic arras gaten naiz
Ceren leguez beldur bainaiz
Amac usteco ducla
Eta mintço-ez-dadin arren
Nere phernesian bera dut ithotcen.
Artçaina lasterrez çathorren ordian
Bere makilla escuan.
Ya barkhamenduaz exitua osoki,
Banohaco furioski
Baina laster naiz hartua,
Burdiñez seguratua;
Eta huna orai non naicen
Nere crima ondiozcoen
Hartceco meneau caztigu yustua.
Ikhas çaçue bederen
Ikhustearekin ni hula acabatcen;
Gaztakeria arinenac
Corregitu onxa hastetic ez-denac,
Emeki, senti ez-dela
Handienetara badaramakela
Eta bat sarthu denean
Bicioaren bidean
Badohala lecerainо
Hare oiñ bat heguian eman duenco.

---

6. Table 20.

Autorra eta Saguac.

Hainitz errencura çuen author batec,
Çaduzcatela saguec
Haren obra hoberenac
Erdi yanac.
Cembat nahi cetçan armarioz chanya
Eta arteac oro heda
Gathu onac ere goarda;
Deusec ez- çuen bâlio:
Prosa, pherxu,(1) drama,(2) edo istorio
Guciac ciren hasiac
Saqui - casta gaitzexiac:
Ez guerlari handi, ez hunen gloria,
Ez ospexu victoria,
Ez çaiteken hunec deusic
Errespeta ceçakenic
Guehiago
Chloris(3) -en buketa ttipino bat baino.
Gure guiçac errabian
(Eta naiz ni sinhexteco,
Author bat hortaraxteco
Den gutiena da franco)
Sartcen du escribanian
7. Presa on bat arsenica(4)
Eta colera handian
Eguiten du herresaca
Liburu bat mementian.
Hare nola uste, eta hala
Saguac ohi beçala

Ausikica lothu ciren:
Eta leher eguin çuten.
Ederki eguina, derrakesu hemen,
Author hare arraçoin çuen,
Ez dut hola penxatcen nic:
Ezta iṣatu libururic
Ausikia içan ez-denic,
Ez tçarric, ez onic,
Embatenaz hobeago
Eta ausiki guehiago:
Ausikilaric ez dire faltaco.
Eta bere pluma dii desohoratcen
Poçoinan duenac sartcen.

---

(1) Pherxutan ez-den escribua.
(2) Theatroco peça guehienean pherxutan dena.
(3) Chloris, andere publico guiça çale bat.
(4) Poçoina.

8. Fable 21.

Arrano eta Untza.

Ozpiña dabilcan chori ospatua (1)
Banderiça batez gorthican beltztua,
Ceruco egoitçatic urrun khasatua;
Yauxi cen lurrera
Han egoitçatcera.
Bere ondicoan gogoan
Bacabillan oihanetan
Triste, herratua,
Biciaz ere unhatua:
Eritasun hartaz eri
Ceina baidarraio handi içanari
Untz çahar bat, adituric
Phagoa huxal batetic,
Haren plainua minetara
Ilkitcen çaitçu leihora;
Eta dio laster frogatcen garbiki
Dohaxutasuna choilki
Datçala hirur pontutaen:
Lanean, bakhean, eta osasunean
Arranoari arenga
Bihotzean sarthu çaica:
9. Anaia maithea, dio ihardexten:
(Direnean gaitzez yoac
Onest dire arranoac)
Çoin çaizkidan niri urus iduritcen!
Ah! çure centçu handiac,
Conxeillutan çuhurtciac
Ala ematen baidarotet,

Çure aboro ikhusteco
Eta çure imitatceco
Desira bicia, baldin badaidiket!
Minerba (1) Jaincosac çu cintuenean
Eçarri buru-gainean,
Harrec ongui bazçakien
Çuc cer balio cinduen:
Hoinbertce iduri çait niri
Harekin duçula ikhasi.
Ez, diotço untzac aldiz,
Ez dut yakitate hainitz;
Baina badakit bederen
Nerearekin pasatcen:
Eta net laket çait ichiltasunean,
Guciz gaibeltasunean.
Ditudanen ikhusten
Elkharren artean choriac liscartcen,
Ceinec curaya edo indar guchiago
Ceinec cantua edo lumaya ederrago;
Hambat pariatçailleen
Artean ez naiz ni sartcen,
Eta bakhar nere alde naiz egoten.
Baldin ondicoz gaizean
Charan edo oihanean,
Artchipote elhati batec
Edo phica tchar cembaitec
Guerthuz ikhusten banaute,
Heien boz erlaxec fite
Alde orotaric hunat
Biltcen dute oste erguel bat;
Ceina baidarrait nohala

Laidoz estaltcen naucla:
Yasaten tut oro
Ychilic banago:
Eta tarrapata hartan
Bakharra, odol-hotzean
Eta coleraric gabe,
Charaz-chara itzuriz, artech eta eme,
Heltcen naiz finean nere chocolura
Bici lekhu hain maithera
Han bakhar eta libroric
Gaitz guciac ahantziric;
Utzten ditu grinac,
Bai eta beldurrac
Borthan campoco aldetic
Beguira, yasan: gucia
Horra nere cientcia:
Bi hitz horietan datza zuhurtcia.

---

(1) Minerba zuhurtciaren eta yakitatearen Yaincosa, ceinari consecratua baitcen untza paganoen demboran.

Table 22.

Arrain hegalduna.

Arrain hegaldun bat beraz
Descontent bere çorteaz
Hula çagoen pleintari
Bere amaso çaharrari:
Amama, ezdakit nic, eguia errateco
Cer dukedan eguiteco
Nere biciac ez galteco:
Uretic gurasco banaiz hegaldatcen
Ixas-arranoac badarraizkit hate,
Urean barnasco banaiz pulumpatcen,
Marraçoac nere irexatera daude.
Axoac derro orduan
Oh! Ene haurra, munduan
Ez denac arrano
Ez-eta marraço
Astiro bidechca bati
Ichil atchic beço bethi
Ez urrun uretic
Hegaldaca
Ez urrun airetic
Iguerica.

Guiça-artean ere berdin
Nehor laite bethi eguin: (nigar)
Ez igan nihoiz goregui:
Han badire arranoac
Yende puchant yeloscorrac
Gaitz naico dautçutenac

Ez yaux ere behereguí.
Han badire marraçoac
Yende tçar, lagun gaitztoac,
Libertin eta falxoac:
Heiekin batcen baçare
Heien idurico fite eguinen çare
Arruinatuco ere.
Bien arteco bidea
Çuc hobe duçu hartcea
Hari yarraikiz bakhea
Segur duçu ukhaitea
Bai halaber ohorea.

Répertoire

5.	Untza eta Usoa	fol.	1.
6.	Bipera eta Chintchibareari	"	4.
7.	Pacha eta Derbicha	"	5.
8.	Castillaco Laboraria	"	8.
9.	Torrota eta Rochinoleta	"	12.
10.	Dirucoia eta bere Semea	"	15.
11.	Cortesanoa eta Proteo-Yaincoa	"	17.
12.	Chimino emea, Chiminoa eta eltchaurra	"	20.
13.	Lapiña eta Chartcheta	"	21.
15.	Lehoinaren educacionea	"	27.
20.	Autorra eta Saguac	"	31.
21.	Arranoa eta Untza	"	33.
22.	Arrain hegalduna	"	36.